

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. LANDA HOTELAK ETA OSTATUAK. 2019KO AZAROA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %1,1 gehitu dira eta ostatu-gauak %1,3 jaitsi 2019ko azaroan

Gela eskuragarriko diru-sarrerak %2,1 murriztu dira Euskal AEko hoteletan

2019ko azaroan, 228.196 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 2.405 gehiago, %1,1eko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Lurraldeka, Gipuzkoan %2,6 igo dira, eta Bizkaian %0,9; Araban, berriz, %2,4 jaitsi dira.

Bestalde, Euskal AEko hotel-establezimenduetan 435.322 ostatu-gau izan dira 2019ko azaroan; hau da, aurreko urteko azaroan baino %1,3 gutxiago, 5.911 ostatu-gau gutxiago. Ostatu-gauak urte arteko bilakaera positiboa izan dute Araban, %0,5eko igoerarekin. Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, %0,3 eta %2,7 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaudiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2019ko Azaroa

	Gaudiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)				Gelatik Errentagarritasuna	
	2019/11	m/m-12 (%)	2019/11	m/m-12 (%)	2019/11	2018/11	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)	RevPar (eurotan)
EUSKAL AE	435.322	-1,3	228.196	1,1	1,91	1,95	48,5	-1,8	61,8	-1,5	80,5	49,8
Estatukoak	294.026	-2,1	158.208	-0,1	1,86	1,90	-	-	-	-	-	-
Atzeritarak	141.296	0,2	69.988	3,7	2,02	2,09	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	59.067	0,5	30.935	-2,4	1,91	1,85	46,2	0,5	60,0	0,8	69,2	41,5
Estatukoak	46.423	-0,5	24.759	-4,0	1,87	1,81	-	-	-	-	-	-
Atzeritarak	12.644	4,2	6.176	4,4	2,05	2,05	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	43.792	3,2	21.901	0,0	2,00	1,94	48,6	1,7	65,6	2,5	61,7	40,5
BIZKAIA	207.710	-2,7	110.594	0,9	1,88	1,95	48,0	-4,4	62,6	-4,6	80,3	50,2
Estatukoak	139.502	-2,2	77.359	0,8	1,80	1,86	-	-	-	-	-	-
Atzeritarak	68.208	-3,6	33.235	1,0	2,05	2,15	-	-	-	-	-	-
Bilbao	140.760	2,5	76.203	6,3	1,85	1,91	53,2	-4,5	68,5	-5,7	89,2	61,1
GIPUZKOA	168.545	-0,3	86.667	2,6	1,94	2,00	50,0	0,6	61,5	1,2	85,0	52,2
Estatukoak	108.101	-2,6	56.090	0,6	1,93	1,99	-	-	-	-	-	-
Atzeritarak	60.444	4,2	30.577	6,6	1,98	2,02	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	99.577	2,8	52.913	4,1	1,88	1,91	56,5	3,0	67,8	4,2	105,7	71,6

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta


Euskal AE osoan, Estatutik etorritako bidaiarien sarrerek %0,1eko aldakuntza negatiboa izan dute 2019ko azaroan, aurreko urteko azaroarekin alderatuta. Jatorria atzerrian dutenak %3,7 igo dira. Araban, Estatuko sarrerek %4,0ko bilakaera negatiboa izan dute, eta atzeritik etorritakoek, berriz, %4,4 egin dute gora. Bizkaian, Estatuko bidaiarien sarrerak %0,8 igo dira, eta atzerrikoak, berriz, %1,0. Gipuzkoan, azkenik, Estatuko sarrerak %0,6 hazi dira, eta atzerrikoak %6,6.

Batez besteko egonaldiaren iraupena 1,91 egunekoa izan da azaroan, 2018ko azaroan batez beste izandako 1,95 egunen azpitik. Araban, iazko azaroan 1,85 egun izatetik aurtengo azaroan 1,91 egun izatera igaro da, eta Bizkaian, berriz, 1,95 egun izatetik 1,88 egun izatera. Azkenik, Gipuzkoan, batez besteko egonaldia 2 egunekoa izan zen 2018ko azaroan, eta 1,94 egunekoa 2019ko azaroan.

Plazakako betetze-mailari dagokionez, portzentajeazko 1,8 puntu jaitsi da Euskal AE osoan, 2018ko azaroan %50,2 izatetik aurtengo azaroan %48,5 izatera igaro baita. Araban ehuneko 0,5 puntuko

hazkundera izan da, %45,7tik %46,2ra. Bizkaian portzentajeazko 4,4 puntuko jaitsiera erregistratu da, 2018ko azaroan okupazioa %52,4koa izatetik joan den azaroan %48,0koa izatera. Gipuzkoan betetze-maila ehuneko 0,6 puntuz igo da, aurreko urteko azaroko %49,4tik azken azaroko %50,0ra igo baita.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera



Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Gelakako betetze-maila ehuneko 1,5 puntuz jaitsi da Euskal AE osorako, gelakako %61,8ko betetze-maila lortuta. Araban portzentajeazko 0,8 puntu egin du gora, eta %60,0tan kokatu da; Bizkaian portzentajeazko 4,6 puntu jaitsi da, %62,6ra iritsiz; eta Gipuzkoan portzentajeazko 1,2 puntu igo da, gelen arabera betetze-maila %61,5etan kokatuz.

Azaroan, Donostian (%56,5), Bilbon (%53,2) eta Gasteizen (%48,6) okupatu dira gehien hotelak plazen arabera.

Asteke eguna aintzat, Euskal AEn 2019ko azaroan okupaziorik handiena, %62,4, aste-bukaeretan gertatu da; %41,4, lanegunetan.

Sektorearen errentagarritasun adierazleez, eguneko batez besteko tarifa (ADR) 80,5 euro izan dira 2019ko azaroan Euskal AEko hoteletan, aurreko urtean baino %0,34 gehiago. Batez besteko tarifa 69,2 eurokoa izan da Araban (%3,10 gora), 80,3 eurokoa Bizkaian (%1,0ko jaitsiera) eta 85,0 eurokoa Gipuzkoan (%1,28 gora).

Gela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar), zeinak okupazioaren arabera diren, 49,8 euro izan dira Euskal AEn 2019ko azaroan, 2018koan baino %2,1 gutxiago. Araban, 41,5 euro; Bizkaian 50,2; eta Gipuzkoan, 52,2.

Landa-ostatuetan sarrerak %17,2 jaitsi dira, eta ostatu-gauak %19,1, 2019ko azaroan

Azaroan 9.452 sarrera erregistratu dira Euskal AEko landa-ostatuetan, aurreko urteko hil berean baino %17,2 gutxiago. Lurraldeka, Araban sarrerak %6,9 jaitsi dira, Bizkaian %38,2 eta Gipuzkoan %5,7. Izan dira 1.113 atzerritar-sarrera, zeina den %8,5eko hazkundera aurreko urtekoen aldean, eta sarrera guztien %11,8 da hori. Estatuko bidaiarien sarrerak %19,7 gutxitu dira, beste alde.

Euskal AEko landa-turismoko establezimenduek eta landetxeek 20.844 ostatu-gau izan dituzte azaroan; hau da, %19,1 jaitsi dira aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Lurraldeka, Araban %6,3 jaitsi dira, Bizkaian %38,6 eta Gipuzkoan %10,6.

Plazen araberrako betetze-maila %16,7koa izan da Euskal AEn, portzentajezko 4,0 puntuko jaitsierarekin 2018ko azaroan lortutako kopuruekiko. Arabak ehuneko 2,0 puntuko beherakada izan du, eta plazakako betetze-maila %15,4tan geratu da. Bizkaian betetze-maila %15,0koa izan da, portzentajezko 7,3 puntuko jaitsierarekin 2018ko azaroarekin alderatuta, eta Gipuzkoan ehuneko 2,8 puntuko jaitsiera izan da, azaroan %18,4ko betetze-mailara iritsiz.

Azkenik, bidaiari bakoitzeko batez besteko egonaldia 2,26 egunekoa izan zen 2018ko azaroan, eta 2,21 egunekoa izatera iragan da azken hilabetean.

Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2019ko Azaroa

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2019/11	m/m-12 (%)	2019/11	m/m-12 (%)	2019/11	2018/11	2019/11	p.p.*
EUSKAL AE	20.844	-19,1	9.452	-17,2	2,21	2,26	16,7	-4,0
Araba/Álava	4.595	-6,3	2.214	-6,9	2,08	2,06	15,4	-2,0
Bizkaia	5.254	-38,6	2.432	-38,2	2,16	2,17	15,0	-7,3
Gipuzkoa	10.995	-10,6	4.806	-5,7	2,29	2,41	18,4	-2,8

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62